

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3125

1539/2025 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Txurdinagako Anbulatorioko Administrazioko Azpitaldeko buru bat hautatzeko deialdia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integatuan.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentearen maiatzaren 5eko 1036/2025 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Txurdinagako Anbulatorioko Administrazioko Azpitaldeko buruaren lanpostu bat izendapen askez betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIan (2025eko maiatzaren 27ko EHAA, 98. zk.).

Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da aurkeztu parte hartzeko baldintzak betetzen dituen hautagairik.

Adierazitako guztiagatik, langileen arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1.e) artikulua (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta deialdia arautzen duten oinarrien arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Hutsik uztea Txurdinagako Anbulatorioko Administrazioko Azpitaldeko buruaren lanpostua betetzeko deialdia Bilbo-Basurtuko ESIan. Horrek ondorioak izango ditu ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta EHAAan argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko ekainaren 26a.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.